

IKERTALENT 2026 DEIALDIA

Aukeratutako eta ezetsitako eskaeren behin betiko zerrenda

Aukeratutako eta ezetsitako eskaeren behin-behineko zerrendaren aurkako alegazioak aurkezteko epea amaituta, Ikerketa Errektoreordetzak ERABAKI DU aukeratutako eta ezetsitako eskaeren behin betiko zerrenda web-atarian argitaratzeko agintzea. Zerrenda hori I. eranskinean dago jasota, ikertzaile nagusiaren eta lortutako puntuazioaren arabera antolatuta.

Argitalpen horrek, EHUren webgunean, 39/2015 Legearen 45. artikuluaaren arabera egindako jakinarazpen-ondorioak izango ditu.

Administrazio-bidea agortzen duen behin betiko ebazpenaren aurka, honako aurkaratze-bide hauek aurkez daitezke, baina inola ere ez aldi berean:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarritz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsitzat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2026ko ekainaren 29a.

IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA

Ikerketa Errektoreordetza